

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/03/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/03/2009

Organoa edo Batzordea: Osoko Bilkura.

Bilera-mota: ohikoa.

Eguna: 2009/03/25

Ordua: Hasiera, 19:30 eta bukaera, 20:05

Tokia: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

Bertaratuak:

Sotero Plazaola Odriozola, alkatea.

Mikel Alzelai Zulaika

Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain

Ane Urkiola Alustiza, EAJko zinegotzia

Francisco Javier Iraeta Alvarez, EAJko zinegotzia

Juan Miguel Urrutia Castillon, EAJko zinegotzia

J. Ramon Larrañaga Mercero, EAKo zinegotzia

M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, EAKo zinegotzia

Vicente Garmendia Martinez, EAKo zinegotzia

Iñaki Sanchez Gastañares, EB-Berdeak taldeko zinegotzia

Ana Salinero Maestre, atxiki gabeko zinegotzia

Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEko zinegotzia

Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.

Jon Mikel Garagarza Roteta, idazkaria.

Bertaratu ezina adierazi dutenak:

Jose Morcillo Guerrero, PSE-EEko zinegotzia

Aztergaiak:

1. Joan den 2008/02/25eko bilkurari dagokion akta onartzea.

GIZARTE ONGIZATEA:

2. Meazti Etxeko araudia behin betiko onartzea.

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:

3. Laubide auzoan urbanizazio berria egiteko obraren kontratazioa behin-behineko esleitzea.

4. Kamioien aparkalekua egiteko, Hiri-antolamendurako Plan Orokorra aldatzeko aurrerakina beharrezkoa ez dela adieraztea.

5. Kamioien aparkalekua egiteko xedez, Hiri-antolamendurako Plan Orokorra aldatzeko herritarren parte hartzea jasotzeko programa.

6. Jaio berriei harrera zibila egiteko udal araudia hasiera batean onartzea.

7. Hileta zibilak ospatzeko udal araudia hasiera batean onartzea.

OGASUNA:

8. ULMA C Y E, Kooperatiba Elkarteari EIOZ aren hobia.

Organo o Comisión: Pleno.

Tipo de Convocatoria: ordinaria.

Día: 25/03/2009

Hora: Comienzo: 19:30 y final: 20:05

Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

Asistentes:

Sotero Plazaola Odriozola, alcalde.

Mikel Alzelai Zulaika

Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain

Ane Urkiola Alustiza, concejal de PNV

Fco. Javier Iraeta Alvarez, concejal de PNV

Juan Miguel Urrutia Castillon, concejal de PNV

Juan Ramon Larrañaga Mercero, concejal de EA

M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, concejal de EA

Vicente Garmendia Martinez, concejal de EA

Iñaki Sanchez Gastañares, concejal de EB-Berdeak

Ana Salinero Maestre, concejal no adscrita

Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE

Fernando Arakama Fernández, interventor.

Jon Mikel Garagarza Roteta, secretario.

Personas que han excusado su asistencia:

Jose Morcillo Guerrero, concejal de PSE-EE

Orden del Día:

1. Aprobación del acta de la sesión del 25/02/2009.

BIENESTAR SOCIAL:

2. Aprobación de finitiva del Reglamento de Meazti.

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:

3. Adjudicación provisional del contrato de obra de ejecución de la reurbanización del Barrio de Laubide.

4. Declaración de innecesariedad de avance para la modificación del PGOU para la obtención de un aparcamiento de camiones.

5. Programa de participación ciudadana para la modificación del PGOU para la obtención de un aparcamiento de camiones.

6. Aprobación inicial del reglamento municipal de acogimientos civiles.

7. Aprobación inicial del reglamento municipal de funerales civiles.

HACIENDA:

8. Bonificación ICIO a ULMA C y E, S. Coop.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/03/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/03/2009

ALKATETZA:

9. UGGASari turismoko kudeaketa uztea.
10. 2009ko Olaria saria.
11. Luzatu diren dekretuen berri ematea.
12. Eskariak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak:

1. Joan den 25/02/2009ko bilkurari dagokion akta onartzea.

Aho batez onartu da.

GIZARTE ONGIZATEA:

2. Meazti Etxeko araudiaren behin betiko onarpena.

Erramun Uribeetxeberria zinegotziak hartu du hitza. Joan den 2009ko otsailaren 17ko gizarte zerbitzuen batzordean Ana Salinero zinegotziak aurkeztu duen alegazioa ez onartzea erabaki zen. Araudia jendaurrean egoteko epearen barruan alegazio gehiago aurkeztu ez direnez, gaurko Osoko Bilkurara ekarri da Meazti Etxeko araudia onartua izan dadin.

Segidan Ana Salinero zinegotziak hartu du hitza. Joan den otsailaren 17an jendaurreko epea oraindik bukatu gabe zegoen eta bere alegazioa bakarrik aztertu zen. Batzordeburua alegazioaren aurka joan zen; Iñaki Sanchez zinegotziak aurka egingo lukeela esan zuen baina alegazioa sinatu gabe zegoenez, baliagarria denari buruz txosten bat egitea eskatu zuen. Alegazioa posta elektronikoz bidali zuen eta horrek legezko balioa du. Epea bukatu gabe egonda eta martxoaren 17ko bilera bertan behera geratu zelako dagokion akta onartu gabe egonda, ez zen prozedura egokia jarraitu eta mahai gainean utziko luke gaia.

Erramun Uribeetxeberria zinegotziak martxoaren 17an bilera egin zela esan du baina ez ziren irizpenak egon ez zeudelako Osoko Bilkurara eramateko gaiak. Batzorde horretan ez zen Ana Salinero zinegotzia egon, batzordekideak irten zirenean bera iritsi zelako. Otsailaren 17ko irizpena dago eta horrela baieztatuko du idazkariak.

Idazkariak berak irizpen bat jaso duela erantzun du. Gaia departamentuko teknikariek in komentatu du eta irizpen bat dagoela esan diote.

ALCALDIA:

9. Encomienda de gestión del turismo en UGGASA.
10. Premio Olaria 2009.
11. Dar cuenta de los decretos dictados.
12. Ruegos y preguntas.

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

1. Aprobación del acta de la sesión del 25/02/2009.

Se aprueba por unanimidad.

BIENESTAR SOCIAL:

2. Aprobación definitiva del Reglamento de Meazti.

Toma la palabra el concejal Erramun Uribeetxeberria. En la pasada comisión de servicios sociales de 17 de febrero de 2009 se decidió desestimar la alegación presentada por la concejala Ana Salinero. Ya que no ha habido más alegaciones tras el periodo de exposición pública, presentan al Pleno la aprobación definitiva del Reglamento de Meazti Etxea.

Toma la palabra la concejala Ana Salinero. El 17 de febrero no había pasado el plazo y sólo se trató su alegación, el Presidente se posicionó en contra, Iñaki Sánchez expone que se posicionaría en contra pero pide un informe sobre la validez de la alegación, porque no está firmada. Continúa señalando que la alegación de mandó por mail y eso es válido legalmente. Al no haber finalizado el plazo y no estar aprobada el acta, porque el 17 de marzo no hubo comisión sino que se anuló, no se sigue el procedimiento adecuado y lo dejaría sobre la mesa.

Erramun Uribeetxeberria contesta que el 17 de marzo se celebró la comisión pero no hubo dictámenes ya que no había temas que llevar al Pleno, a dicha comisión no asistió Ana Salinero, ya que cuando los miembros salían ella entraba. Insiste en que hay dictamen del 17 de febrero y así lo corroborará el secretario.

El secretario señala que a él se le ha presentado un dictamen, ha consultado el tema con las técnicas del Departamento y efectivamente hay dictamen.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/03/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/03/2009

Ana Salinero zinegotziak batzordeko akta onartzen bada irizpenik ez dagoela esan du.

Idazkariak erantzuten dio akta ez onartzeak ez duela esan nahi batzorde horretan hartutako erabakiak balio gabe geratzen direnik.

Juan Ramon Larrañaga jaunak zer onartu den galdetu dio Erramun Uribeetxeberria zinegotziari, hasierako onarpenaren akordioan araudia eta tasa sartu baitziren. Batzordearen akta irakurri du eta irizpenik ez dagoela pentsatzen du.

Idazkariak lehenbizi araudia hasiera batean onartu zela alde batetik eta bestetik tasa onartu zela zehaztu du.

Juan Ramon Larrañaga jaunak alegazioa tasari buruzkoa dela esan du eta azalpenen bat eman dadila eskatu du.

Iñaki Sanchez zinegotziak tasaren gaineko alegazioa bada, ezin dela Meazti etxeko araudiaren onarpenean aztertu esan du; bi gauza desberdin dira.

Gaia erabakitzeko botoetara jo ondoren, behin betiko onartu da Meazti etxeko araudia honako emaitzekin: aldeko 7 boto (alkatea, Erramun Uribeetxeberria, Mikel Alzelai, EAJko 3 zinegotziak eta Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia), aurkako 2 boto (PSE-EEko Oscar Murillo zinegotzia eta Ana Salinero zinegotzia) eta 3 abstentzio (EA).

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:

3. Laubide auzoan urbanizazio berria egiteko obraren kontratazioa behin-behineko esleitzea.

Alkateak hartu du hitza. Gai hau pasa den Hirigintza batzordean azaldu zen. Bertan kontratazio mahaia bi aldiz bildu zela azaldu zen. Bestetik, honako proposamena egitea erabaki zen: Laubide auzoan urbanizazio berria egiteko obraren kontratua CONSTRUCCIONES INGESA enpresari behin-behineko ematea, 747.513,85 eurotan. Obra egiteko epea 7 hilabetekoa izango da.

Ondoko hauek izan dira lehiatzaileek jaso dituzten puntuazio totalak:

Ana Salinero manifiesta que si no se aprueba un acta de comisión no hay dictamen.

Replica el secretario que el hecho de no aprobarse el acta no invalida las desiciones que se toman en esa comisión.

Juan Ramón Larrañaga pregunta a Erramun Uribeetxeberria que es lo que se aprueba, ya que el anterior acuerdo de aprobación inicial hablaba del reglamento y la tasa. Lee el acta de la comisión y piensa que no hay dictamen.

El Secretario acalara que anteriormente se aprobó inicialmente por un lado el reglamento, y la tasa se aprobó aparte.

Juan Ramón Larrañaga añade que la alegación versa sobre la tasa, por eso pide una explicación.

Iñaki Sánchez opina que si es una alegación a la tasa no procede tratarla en la aprobación del reglamento de Meazti, son dos cosas distintas.

Sometida la cuestión a votación, se aprueba definitivamente el reglamento de meazti, con 7 votos a favor (Alcalde, Erramun Uribeetxeberria, Mikel Alzelai, 3 concejales del PNV y el Concejal de Ezker Batua Berdeak), 2 votos en contra (el concejal del PSE-EE Óscar Murillo y la Concejala Ana Salinero) y tres abstenciones (EA):

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:

3. Adjudicación provisional del contrato de obra de ejecución de la reurbanización del Barrio de Laubide.

Toma la palabra el Alcalde. Tal y como se explicó en la Comisión de Urbanismo, tras dos sesiones de la mesa de contratación, la misma propone que se adjudique provisionalmente a CONSTRUCCIONES INGESA por un precio de 747.513,85 € y un plazo de ejecución de la obra de 7 meses el contrato de obra para la ejecución de la reurbanización del Barrio de Laubide.

La puntuación total obtenida por los licitadores ha sido la siguiente:

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/03/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/03/2009

INGESA: 84,8 puntu.
MULARRI: 62,09 puntu.
MENDIOLA: 72,89 puntu.
OLLOQUIEGUI: 81,5 puntu.

Segidan, kontratazeko mahaiak egindako proposamena jasotzen duen honako irizpena aurkeztu da: Laubide auzoan urbanizazio berria egiteko obra-kontratua CONSTRUCCIONES INGESA enpresari behin-behineko esleitzea, 747.513,85 eurotan eta horretarako 7 hilabeteko epea ematea.

Irizpena erabakitzeko botoetara jo ondoren honako emaitzekin onartu da: aldeko 7 boto (alkatea, Erramun Uribeetxeberria, Mikel Alzelai, EAJko 3 zinegotziak eta Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia) eta 5 abstentzio (EAKo 3 zinegotziak, PSE-EEko Oscar Murillo zinegotzia eta Ana Salinero zinegotzia).

4. Kamioien aparkalekua egiteko, Hiri-antolamendurako Plan Orokorra aldatzeko aurrerakina beharrezkoa ez dela adieraztea.

Gai hau ere aurreko asteko Hirigintza batzordean aztertu zen. Aldaketarekin hirigintza-eremu berria sortuko da; Mendiaraz izena jasoko du eta 57. hirigintza-eremua izango da. Bertan, kamioiak aparkatzeko gunea egokitzea aurreikusi da eta bide-lotura zuzena izango du Elbarrena sektorearekin. Horrela, Urola Garaia eskualdean zerbitzua eskaintzen duten kamioiak aparkatzeko oinarritzko zerbitzugunea egokituko da. Aparkalekua egokituko den ibarrak 31.129 metro koadro ditu.

Momentu honetan, Udalak lehenengo erabaki bat hartu beharko du: aurrerakina izapidetuko duen edo, aldez, dokumentua hasiera batean onartuko duen.

Hirigintzako batzordeak honako irizpen hau aurkeztu du:

Mendiaraz izena jasoko duen 57. hirigintza-eremu berrian kamioiak aparkatzeko gunea egokitzeke Hiri-antolamendurako Plan Orokorra aldatzeko aurrerakina egin beharrik ez dagoela erabaki dezala proposatzea Osoko Bilkurari.

INGESA: 84,8 puntos.
MULARRI: 62,09 puntos.
MENDIOLA: 72,89 puntos.
OLLOQUIEGUI: 81,5 puntos.

El dictamen que se presenta asume la propuesta formulada por la mesa de contratación, es decir, adjudicar provisionalmente a CONSTRUCCIONES INGESA el contrato de obra para la ejecución de la reurbanización del Barrio de Laubide, por un precio de 747.513,85 € y un plazo de ejecución de la obra de 7 meses.

Sometida la cuestión a votación, se aprueba el dictamen presentado, con 7 votos a favor (Alcalde, Erramun Uribeetxeberria, Mikel Alzelai, 3 concejales del PNV y el Concejale de Ezker Batua Berdeak) y cinco abstenciones (3 de EA, el concejal del PSE-EE Óscar Murillo y la Concejala Ana Salinero).

4. Declaración de innecesariedad de avance para la modificación del PGOU para la obtención de un aparcamiento de camiones.

Toma la palabra el Alcalde. Este tema también se trató en la pasada comisión de urbanismo. Con la modificación que se pretende habrá un nuevo ámbito urbanístico que se denominará AU 57 Mendiaraz y se prevé el acondicionamiento futuro de un aparcamiento de camiones, con conexión viaria desde el sector de Elbarrena. Se va a habilitar un área básica de transporte para el aparcamiento de camiones al servicio de la comarca del Alto de Urola, en una vaguada que cuenta con una superficie de 31.129 m².....

Llegados a este punto, la primera decisión a adoptar por parte del Ayuntamiento es decidir si se tramita el avance o por el contrario, procede la aprobación inicial del documento.

La Comisión de Urbanismo presenta el siguiente dictamen:

Proponer al Pleno que declare la innecesariedad de avance para la modificación del Plan General de Ordenación Urbana para la obtención de un aparcamiento de camiones en el nuevo ámbito urbanístico que se denominará AU 57 Mendiaraz.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/03/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/03/2009

Irizpena erabakitzeke botoetara jo ondoren honako emaitzekin onartu da: aldeko 10 boto ((alkatea, Erramun Uribeetxeberria, Mikel Alzelai, EAJko 3 zinegotziak, EAko 3 zinegotziak eta Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia) eta bi abstentzio (PSE-EEko Oscar Murillo zinegotzia eta Ana Salinero zinegotzia).

5. Kamioien aparkalekua egiteko xedez, Hiri-antolamendurako Plan Orokorra aldatzeko herritarren parte hartzea jasotzeko programa.

Aurreko puntuarekin lotuta, Hirigintzako batzordean aipatu gai aztertu zen eta horretarako Plan Orokorra egiteko onartu zen dokumentua hartu zen oinarritzat.

Hirigintzako batzordeak honako irizpen hau aurkeztu du:

Kamioiak aparkatzeko gunea egokitzeko hiri-antolamendurako Plan Orokorra aldatzeko herritarren parte-hartzeko programa onartzea.

Proposamena erabakitzeke botoetara jo ondoren honako emaitzekin onartu da: aldeko 10 boto (alkatea, Erramun Uribeetxeberria, Mikel Alzelai, EAJko 3 zinegotziak, EAko 3 zinegotziak eta Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia) eta bi abstentzio (PSE-EEko Oscar Murillo zinegotzia eta Ana Salinero zinegotzia).

6. Jaio berriei harrera zibila egiteko udal araudia hasiera batean onartzea.

7. Hileta zibilak ospatzeko udal araudia hasiera batean onartzea.

Gure gizartea anitza da eta etengabe aldatzen ari dira bertako ohiturak eta ospakizunak; horrela, ezaguna da gure gizartearen ideologia, erlijio eta kultur aniztasuna. Horregatik, gure erakundeek pertsonen eta pertsona-elkarteen askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta kulturkoa bermatu behar dute eta lan horretan izango duten muga bakarra legearen arabera mantendu behar den orden publikoa gordetzeko egin beharrekoa izango da.

Sometida la cuestión a votación, se aprueba el dictamen presentado, con 10 votos a favor (Alcalde, Erramun Uribeetxeberria, Mikel Alzelai, 3 concejales del PNV, 3 de EA y el Concejal de Ezker Batua Berdeak) y dos abstenciones (el concejal del PSE-EE Óscar Murillo y la Concejala Ana Salinero).

5. Programa de participación ciudadana para la modificación del PGOU para la obtención de un aparcamiento de camiones.

Como continuación del punto anterior, decir que e la pasada Comisión de Urbanismo se trató este tema, señalando que se tomó como referencia el documento que se aprobó para el Plan General.

La Comisión presenta el siguiente dictamen:

Aprobar el Programa de participación ciudadana para la modificación del PGOU para la obtención de un aparcamiento de camiones.

Sometida la cuestión a votación, se aprueba el dictamen presentado, con 10 votos a favor (Alcalde, Erramun Uribeetxeberria, Mikel Alzelai, 3 concejales del PNV, 3 de EA y el Concejal de Ezker Batua Berdeak) y dos abstenciones (el concejal del PSE-EE Óscar Murillo y la Concejala Ana Salinero).

6. Aprobación inicial del reglamento municipal de acogimientos civiles.

7. Aprobación inicial del reglamento municipal de funerales civiles.

Es conocida la diversidad ideológica, religiosa y cultural de nuestra sociedad, plural y en transformación constante en cuanto a la manifestación de sus costumbres y actos sociales. Por ello, las instituciones deben garantizar la libertad ideológica, religiosa y de culto de las personas y comunidades sin más limitación que la necesaria para mantener el orden público de acuerdo con la ley.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/03/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/03/2009

Hileta edo omenaldi zibilek eta haur jaio berriei harrera egiteko ospakizunek, erlijiorik gabe eta norberaren bizi-proiektuaren arabera bizitzea aukeratu duten herritarrei ospakizun duin eta pertsonala eskaintzeko behar sozialean dute oinarria.

Heriotzagatiko azken-agurrak edo omenaldi zibilak ospatzeko Ordenantzak eta haur jaio berrien harrera zibilen udal-erregistroa arautuko duen Araudiak, gizartearen aipatu eskariari erantzun nahi diote.

Bi diktamen aurkeztu dira, bat araudi bakoitzerako. Lehenbizi, hasiera bateko onarpena erabaki da eta ondoren:

2.- Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, hartutako erabakia eta horren gainean bideratuko den espediente, jendaurrean agerian jarriko da, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita 30 laneguneko epean. Epe horretan nahi adina erreklamazio eta alegazio aurkeztu ahal izango dira.

3.- Aipatu epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, hasieran onartutakoa behin betiko onartuta geratzen dela ulertuko da eta, beraz, Udaltzako ez du horren gainean erabaki berri bat hartu beharrik izango.

Irizpen biak erabakitzeke botoetara jo ondoren onartu egin dira aldeko hamaika botorekin eta Ana Salinero zinegotziaren abstentzioarekin.

OGASUNA:

8. ULMA C Y E, Kooperatiba Elkarteari EIOZren hobaria.

Alkateak hartu du hitza. ULMA C y E Kooperatiba elkartearen lantegian hainbat obra egin dira eta aipatu enpresak Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren 6. artikuluan jasotako hobaria eskatu du. Joan den 2009ko martxoaren 17ko Ogasun batzordeak ULMA C y E kooperatiba elkarteak egin duen eskaria ez onartzea erabaki zuen.

La realización de funerales u homenajes civiles, así como la celebración de acogimientos civiles nace de la necesidad social de ofrecer una ceremonia digna y personal a aquellas ciudadanas y ciudadanos que han escogido vivir sin la religión, de conformidad a cómo conciben la vida.

La ordenanza para la Celebración de Despedidas u Homenajes Civiles por Fallecimiento y el Reglamento del Registro Municipal de Acogimientos Civiles pretenden dar respuesta a la demanda social mencionada.

Se presentan dos dictámenes, uno por cada ordenanza, primeramente se procede a la aprobación inicial y a continuación:

2.- En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de Bases de Régimen Local, el acuerdo adoptado y el expediente al efecto instruido, se someten a información pública por un periodo de 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, a fin de que puedan presentarse las reclamaciones y alegaciones que se estimen oportunas.

3.- En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces inicial, sin que por el Ayuntamiento Pleno deba adoptarse al efecto un nuevo acuerdo expreso.

Sometidos ambos dictámenes a votación se aprueban los mismos, con once votos a favor y la abstención de la concejala Ana Salinero.

HACIENDA:

8. Bonificación ICIO a ULMA C y E, S. Coop.

Toma la palabra el Alcalde. Con motivo de diversas obras de la nave industrial de ULMA PRECINOX realizadas por ULMA C Y E, S.Coop., se solicita la bonificación regulada en el artículo 6 de la Ordenanza Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras. La Comisión de Hacienda, en sesión celebrada el 17 de marzo de 2009, dictaminó denegar la solicitud efectuada por ULMA C Y E, S.COOP en todos sus términos.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/03/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/03/2009

Irizpena erabakitzeke botoetara jo ondoren atzera bota da honako emaitzekin: aurkako 9 boto (EAJko 3 zinegotziak, EAKo 3 zinegotziak, PSE-EEko Oscar Murillo zinegotzia eta Ana Salinero zinegotzia) eta aldeko 4 boto (alkatea, Erramun Uribeetxeberria, Mikel Alzelai eta Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia).

Idazkariak irizpena ez onartzeak hobia onartzea dakarrela ulertzen duela esan du.

Segidan, Iñaki Sanchez zinegotziak hartu du hitza. Berak irizpena ez onartzeak ez dakarrela hobia onartzea ulertzen duela adierazi du. Bestetik, aurka eman duen botoa azaldu nahi du. Ordenantzan ongi zehaztu beharko liritekeen hainbat egoeretan izan ezik, bera ez dator bat horrelako hobia enpresei eskaintzarekin. Hobia izaera sozialeko erakundeei zuzendutakoak izan behar duela ulertzen du eta, horrelakoetan, aldeko botoa eman du hobia ikastetxeei edo... emateko izan denean.

Bestalde, joan den 2006ko irailaren 27an egin zen Osoko Bilkuraren aktan jasotakoaren arabera, ULMAri eman zitzaion hobia enplegua sortzearen truke eman zen. Esan beharra dago enplegua sortzen duten beste enpresei Ogasun batzordeak ezetz esan diela aho batez. Bere lokala berritzen duen langile autonomoak ere enplegua sustatzen du eta ez zaio hobaririk ematen. Ez daki ULMA enpresak enplegua sortzeari buruz bere garaian zer nolako proposamena egin zuen baina ezagutzen du norbait lehen bertan lanean ari zena eta orain lan gabe dagoena. Zer gertatuko litzateke enpresa horrek ez balituzke 2006an hobia eman zitzaionean hartu zituen konpromisoak beteko? Halaber, ez daki noraino iristen zen hartutako konpromisoa: behin betiko enplegua sortzeko zen, edo aldi baterako, edo epe jakin betarako, Legazpikoentzat bakarrik,.....?

Legazpiko udalerrriak ahalegin handia egin du enpresa hori hemen bertan ezar dadin. Berridiro irizpena ez onartzeak bere ustez ez dakarrela hobia onartzea.

Jarraian, Juan Ramon Larrañaga zinegotziak hartu du hitza. Bere ustez irizpena ez onartzeak hobia onartzea dakar. Horrez gain gogora ekarri nahi du inoiz baino garrantzi handiagoa duen Legazpi Bai proiektuaren barruan

Sometida la cuestión a votación, se rechaza el dictamen presentado, con 9 votos en contra del dictamen (3 PNV, 3 EA, el concejal del PSE-EE Óscar Murillo y la Concejala Ana Salinero) y cuatro votos a favor del dictamen favor (Alcalde, Erramun Uribeetxeberria, Mikel Alzelai, y el Concejal de Ezker Batua Berdeak).

El secretario entiende que el rechazo del dictamen supone la bonificación.

Toma la palabra Iñaki Sánchez. Él entiende que el rechazo del dictamen no supone que se tenga que bonificar. También quiere explicar su voto contrario. Salvo circunstancias muy concretas que debieran de estar detalladas en la ordenanza, no están de acuerdo que se aplique este tipo de bonificaciones a empresas, entienden más bien que las bonificaciones deben de ir dirigidas a entidades de marcado carácter social, y así por ejemplo han votado a favor de bonificaciones a centros escolares,...

Otro motivo es que según el acta del Pleno que se celebró el 27 de septiembre de 2006, en la bonificación que se dio a ULMA se marcaba el acento en la creación de empleo. A este respecto decir que a otras empresas que generan empleo por unanimidad en comisión de Hacienda se les ha dicho que no. También fomenta el empleo autónomo que reforma su local y no se le bonifica. Desconocen la propuesta de creación de empleo que hizo ULMA en su momento, pero empieza a conocer a alguna que otra persona que antes trabajaba allí y ahora está sin empleo. ¿qué pasaría si esta empresa no está cumpliendo con los compromisos acordados cuando se le concedió la bonificación en el 2006? Tampoco conoce si el compromiso era por un empleo indefinido, por un empleo temporal, con plazo de vigencia, si era para personas de Legazpi,...

El pueblo de Legazpi ya ha hecho un suficiente esfuerzo para ayudar a la implantación de esta empresa. Reitera que el rechazar el dictamen no quiere decir que se haya concedido la bonificación.

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga, él entiende que con el rechazo del dictamen si se ha concedido la bonificación. Además, quiere recordar que dentro del proyecto Legazpi Bai, que tiene más vigencia que nunca, hay un eje de actividad

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/03/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/03/2009

jarduera ekonomiko eta enpresarialaren ardatz bat dagoela eta haren edukia laburtu du. Neurri honekin bultzada bat eman nahi zaio ardatz horri. Bestetik, Administrazioak UGGASAtik langile autonomoei laguntza eskaintzen diela ekarri nahi du gogora. Bukatzeko, Legazpiren garapen ekonomikoak kooperatiben bermearen beharra duela esan du.

Ondoren, idazkariak hartu du hitza. Irizpena ez onartzeak hobaria onartzea dakarrela ulertzen duela esan du. Dena den, irizpenaren aurka emandako botoak azal daitezela eskatu du.

Kontu-hartzaileak neurri batean Iñaki Sanchez zinegotziak esandakoarekin bat datorrela esan du. Ordenantzaren artikuluko hori zalantzarik da eta modu desberdinean uler daiteke. Egintza bakarrean egiten duguna berez ez da egintza bakarra. Osoko Bilkurak enplegu-arrazoia edo bestelakoak aintzat hartuta interes berezia aldarrikatzen du edo ez eta horren ondorioz hobaria eskainiko da edo ez. Horrela, ez da berez hobariaren alde edo kontra egiten baina bozketan erabakitzen dena aldeko edo kontrako aldarrikapena da.

Alkateak ULMA enpresa estrategikoa dela garbi duela esan du baina ULMAk 95.000 euroko hobaria jaso zuen 2006an lantegi berria eta bulegoak egin zituenean. Ondoren, goi-tentsioa eraman zuenean 15.000 euroko hobaria eman zitzaion. Guztira, 105.000 euro eta orain 60.000 euro gehiago dira. Guztira 180.000 euro izango lirarteke. Enpresa batek erreformaren bat egiten duen bakoitzean hobaria eman behar baldin bazaio, horrek eragina izango du udaleko diru-kutxetan. Egia da enpresa estrategikoa dela eta kooperatibak erakarri behar direla baina bestelako formulak aurkitu behar dira.

Gaiarekin bukatzeko, idazkariak berriro eskatu die bozeramaileei emandako botoa azal dezatela. EAJ, EA eta PSE taldeetako bozeramaileek eta Ana Salinero zinegotziak emandako botoa hobaria onartzearen aldekoa izan dela argitu dute.

Alkateak eman den botazioarekin aldatu egiten dela ulertzen du.

Oscar Murillo zinegotziak egungo egoeran Udalak ahalegin hori egin behar duela ulertzen du.

económico empresarial, haciendo un resumen de su contenido. Esta medida que han apoyado va en el sentido apuntado por el citado eje. Por otra parte, desde la Administración, desde UGGASA si se ayuda a los autónomos. Concluye que el desarrollo económico de Legazpi necesita del aval de las cooperativas.

Toma la palabra el secretario. Sigue entendiendo que el rechazo del dictamen supone conceder la bonificación, no obstante solicita a los que han rechazado el dictamen que expliquen el sentido de su voto.

El interventor está hasta cierto punto de acuerdo con el concejal Iñaki Sánchez. El artículo en cuestión de la ordenanza está deliberadamente en su momento ambiguo y permite diversas interpretaciones. Lo que hacemos en su solo acto en realidad no es un solo acto, el Pleno lo que hace es declarar o no declarar el interés especial por razones de empleo o de lo que fuera, y eso posibilitaría o no la bonificación. Por tanto, no se vota expresamente la bonificación, pero lo que se está votando implícitamente es la declaración o no declaración.

El Alcalde dice que está claro que ULMA es una empresa estratégica, pero a ULMA ya se le bonifica en el 2006 con una cantidad de unos 95.000 euros cuando se construyó la planta y las oficinas, luego con llevar la alta tensión se le bonificó en 15000 euros, ya sumamos 105.000 y ahora llegan 60.000 euros. Hablamos de un total de unos 180.000 euros. Si cada vez que una empresa hace una reforma hay que bonificar se repercute en las arcas municipales. Es verdad que es una empresa estratégica y que hay que atraer cooperativas, pero hay que buscar otro tipo de fórmulas.

Para cerrar el tema, el secretario insiste en que los portavoces aclaren el sentido de su voto. Los portavoces de PNV, EA PSE y la concejala Ana Salinero aclaran que su voto supone un sí a la bonificación.

El Alcalde entiende que con la votación producida se entiende que se modifica.

Óscar Murillo opina que en la situación actual el Ayuntamiento sí tiene que hacer ese esfuerzo.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/03/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/03/2009

Segidan, Iñaki Sanchez zinegotziak hartu du hitza eta Osoko Bilkuraren erabakiak zehatzak izan behar direla dio. Ezin da gauzen zentzua bakarrik jaso; ez dago hobaria edo interesaren aldarrikapena emateko erabaki zehatzik. Horrez gain, beste enpresa batzuk ere enplegua sustatzen dutela esan du eta zenbait enpresari ezetz esan zaie. Udalak bere egunean ahalegin handia egin zuela ulertzen du.

ALKATETZA:

9. UGGASari turismoa kudeatzeko ardura ematea.

Gai hau UGGASAn eta mankomunitatean aztertu da. Ondoko hau da proposamenaren edukia:

Lehenengoa.- Enkarguaren helburua. Legazpiko Udalak UGGASari eskatzen dio Legazpin turismoa kudeatzeaz ardura dadila eta UGGASak onartu egiten du.

Bigarrena.- Enkarguaren burutze-epea. UGGASak lan horiek 3 urtetan zehar egingo ditu, eskualdean turismoa kudeatzeko ardura UGGASari esleituko zaion unetik kontatzen hasita.

Egingo diren lanak Administrazaio-baldintzen Agirian eta Baldintza teknikoan Agirian jaso dira. Agiri horiek dagokion administrazio-espeditentean daude.

Hirugarrena.- Enkarguaren norainokoa eta mugak. Legazpiko Udalaren eskumenak.

Turismoa kudeatzeko enkarguaz ari garenean, lan materialaz, teknikoaz edo zerbitzua eskaintzeaz ari gara baina ez zaio UGGASari eskumen horren titularitatea eta lan horren funtsezko elementuak lagatzen.

Udalaren ardura izango da enkarguan emandako lana zuzentzea eta berrikustea. Eginkizun horretan ondoko hauek izango dira bere eginbeharrekoak:

a) Enkarguan emandako jarduerari ekin ahal izateko beharrezkoak diren izaera juridikoko egintzak edo ebazpenak ematea.

Toma la palabra Iñaki Sánchez señalando que los acuerdos del Pleno han de ser expresos, no limitándose a coger el sentido de las cosas, no hay una declaración expresa de conceder tanto la bonificación como la declaración de interés. Independientemente de eso, concluye que fomento del empleo lo hacen todas las empresas, y ha habido empresas a las que les hemos dicho que no. El Ayuntamiento ya hizo en su momento un esfuerzo suficiente.

ALCALDIA:

9. Encomienda de gestión del turismo en UGGASA.

Este tema se ha tratado en UGGASA y en la Mancomunidad. El contenido de la encomienda propuesta es el siguiente:

Primera.- Objeto de la encomienda. El Ayuntamiento de Legazpi encarga a UGGASA que acepta, la ejecución del TURISMO en Legazpi.

Segunda.- Plazo de ejecución de la encomienda. UGGASA deberá de realizar los trabajos en el plazo de 3 años desde que UGGASA adjudique la prestación del TURISMO en la Comarca.

Los trabajos vienen descritos en el Pliego de Cláusulas administrativa y Pliego de condiciones técnicas que obran en el expediente administrativo.

Tercera.- Alcance y límites de la encomienda. Facultades del Ayuntamiento de Legazpi.

La presente encomienda de gestión implica exclusivamente la realización de carácter material, técnico o de servicios y no supone cesión de la titularidad de la competencia ni de los elementos sustantivos de su ejercicio.

El Ayuntamiento es responsable de la dirección y supervisión del ejercicio de la actividad encomendada. En el ejercicio de dicha facultad le corresponde

a) Dictar los correspondientes actos o resoluciones de carácter jurídico en los que integra la actividad material objeto de encomienda.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2009/03/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/03/2009

b) Jarraibideak ematea zerbitzua egoki presta dadin.

c) Enkarguan emandako jarduerari buruz une oro informazioa eskatzea UGGASARI.

Laugarrena.- Diru-hornidura. Enkarguan emandako lanak ordaintzeko, Legazpiko Udalak urteko 65.934 euro emango dizkio UGGASARI. Diru-kopuru hori urtero Estatistikako institutuak onartuko duen biztanleen kopuruaren eta eskaintzaren esleipenaren prezioaren arabera zehaztuko da.

Bostgarrena.- Enkarguaren indar-galtzea.

a) Bi alderdiren artean adostuta.

b) Enkargua eman duen Administrazioak balio gabe utzi dezake agindutako hori UGGASAK eskuratutako betebeharretan hutsegite larria egiten badu. Baliogabetzea ebazpenaren bidez erabakiko du Administrazio enkargu-emaileak eta, horretarako, entzuteko aukera eskainiko dio enkargua kudeatzen duen administrazioari.

c) Jasotako enkargua kudeatzeaz arduratzen den Sozietateak ere uko egin diezaioke enkargu horri, Administrazio enkargu-emaileak berari dagozkion betebeharretan hutsegite larria egiten badu.

Nolanahi ere, Jarraipen eta Kontrol batzordearen aldeko irizpena beharko da horretarako. Aipatu batzordea Urola Garaia mankomunitateko alkateek eta enkargua jaso duen erakundeko ordezkariak osatuko dute. Batzordeburua UGGASAKo lehendakaria izango da eta idazkaria UGGASAKo gerentea.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, planeatu den kudeaketa enkarguz ematea onartu da. Hau izan da bozketaren emaitza: aldeko 10 boto eta bi abstentzio (PSE-EEko Oscar Murillo zinegotzia eta Ana Salinero zinegotzia).

10. 2009ko Olaria saria.

Betiko prozedura jarraitu da. Aurten hauek izan dira saria jasotzeko proposatu direnak: Mirandaolako olagizonak, Eva Ripa, Goiz-Deia txistulariak, Gazte Asanblada eta Iñaki Azarola eta Bittor Agirre bertsolariak.

b) Impartir instrucciones para la prestación del servicio.

c) Recabar en todo momento información a UGGASA de la encomienda sobre la actividad encomendada.

Cuarta.- Dotación económica. Como compensación a las tareas encomendadas el Ayuntamiento de Legazpi aportará a UGGASA la cantidad de 65.934 euros/año. Esta cantidad dependerá del número de habitantes aprobado oficialmente cada año por el INE y el precio de adjudicación de la licitación.

Quinto.- Extinción de la encomienda:

a) Por mutuo acuerdo de las partes.

b) Por revocación de la Administración encomendante ante cualquier incumplimiento grave de las obligaciones asumidas por UGGASA. La revocación se realizará mediante resolución motivada de la Administración encomendante otorgando previamente trámite de audiencia a la Administración gestora de la encomienda.

c) Por renuncia de la Sociedad gestora de la encomienda ante cualquier incumplimiento grave de las obligaciones asumidas por parte de la Administración encomendante.

En todo caso, se precisará el dictamen favorable de la Comisión de seguimiento y control que presidida por el Presidente de UGGASA, estará integrada por todos los Alcaldes de la Mancomunidad Urola-Garaia, y un representante de la mercantil adjudicataria, actuando como secretario la Gerente de UGGASA.

Sometida la cuestión a votación, se aprueba la encomienda de gestión planteada, con diez votos a favor, y dos abstenciones (el concejal del PSE-EE Óscar Murillo y la Concejala Ana Salinero).

10. Premio Olaria 2009.

Este año los candidatos propuestos han sido los siguientes: Ferrones de Mirandaola, Eva Ripa, Goiz Deia Txistulariak, Gazte Asanblada, los Bertsolaris, Iñaki Azarola y Bittor Agirre.

UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA 2009/03/25	 LEGAZPIKO UDALA	ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL 25/03/2009
---	---	--

Lehenengo bozketan berdinketa eman da: 4 boto Goiz-Deia txistularientzat eta 4 boto Mirandaolako olagizonentzat. Bigarren bozketan 2009ko OLARIA saria GOIZ-DEIA txistularien taldeari ematea erabaki du Epaimahaiak.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, 2009ko Olaria saria GOIZ-DEIA txistularien taldeari ematea erabaki da emaitza hauekin: aldeko hamar boto eta bi abstentzio (PSE-EEko Oscar Murillo zinegotzia eta Ana Salinero zinegotzia).

11. Luzatu diren dekretuen berri ematea.

Banatu dira.

12. Eskariak eta galderak.

Ez da izan ez eskaerarik, ez galderarik.

Alkateak, arratsaldeko 20:00ak eta bost minutu direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

Tras la primera votación se produce un empate a 4 entre Goiz Deia Txistulariak y 4 para los ferrones. Tras la segunda votación, el Jurado propone otorgar el distintivo honorífico OLARIA 2009 a GOIZ DEIA TXISTULARI TALDEA.

Sometida la cuestión a votación, se concede el premio Olaria 2009 a GOIZ DEIA TXISTULARI TALDEA, con diez votos a favor, y dos abstenciones (el concejal del PSE-EE Óscar Murillo y la Concejala Ana Salinero).

11. Dar cuenta de los decretos dictados.

Ya se han repartido.

12. Ruegos y preguntas.

No ha habido ni ruegos ni preguntas.

El alcalde levanta la sesión, siendo las 20 horas y 5 minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

<p>Akta hau (e)an egindako bileran onartu zen: 2009/04/29</p> <p><input type="checkbox"/> bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.</p> <p><input type="checkbox"/> baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.</p>	<p>Este acta fue aprobada en la sesión del día : 29/04/2009</p> <p><input type="checkbox"/> en su integridad, sin ninguna objeción.</p> <p><input type="checkbox"/> si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.</p>
<p>Jon Mikel Garagarza Roteta Idazkaria</p>	<p>Sotero Plazaola Odriozola Alkatea</p>